

**“EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK”
ARAUTZEKO ORDENANTZA.****1. ARTIKULUA – HELBURUA.**

Ordenantza honen helburua da Igorreko Udalak euskara ikasi edo euskaraz alfabetatzeko ikastaroak egin dituzten herritarrei diru-laguntzak ematea.

2. ARTIKULUA – DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA.

Diru-laguntza matrikularen % 100 izango da.

Beste diru-laguntzarik jasoz gero, gain-finantzaketa ekidite aldera, Igorreko Udalak %100era arteko diferentzia soilik ordainduko du.

Diru kopuru hori ezin izango da urte eta pertsonako 600,00€-tik gorakoa izan.

3. ARTIKULUA – DIRU-LAGUNTZA JASO AHAL IZATEKO BALDINTZAK.

- Igorren erroldaturik egotea ikastaroak irauten duen aldi osoan eta, gutxienez ere, 16 urte beteta izatea.
- Ikastaroak HABEK homologatutako euskaltegietan egitea.
- Eskoletako asistentzia %80koa izatea edo matrikulatutako maila gainditzea
- Udalarekiko zerga betebeharrak egunean edukitzea
- Ikastaroa bukatu eta diru-laguntza eskatzeko ezarri den epean eskaerarik egin ezean, ezin izango da aurrerantzean, egindako ikastaro horrengatik diru-laguntzarik eskatu.

4. ARTIKULUA – AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Interesatuak Igorreko udaletxeko Erregistro Orokorrean eskura daitezkeen inprimakien bitartez eskatu beharko dute diru-laguntza honako agiri hauekin batera:

- Dagokion ikastarorako, beste inongo erakundetatik diru-laguntzarik jaso ez izanaren aitortpen sinatua. Eta jaso badu, dagokion egiaztagiria.

ORDENANZA REGULADORA DE LAS “AYUDAS ECONÓMICAS PARA EL APRENDIZAJE DEL EUSKERA”.**ARTÍCULO 1.- OBJETO.**

Es objeto de la presente Ordenanza la regulación de las ayudas económicas que el Ayuntamiento de Igorre concede para las personas del municipio por el aprendizaje o alfabetización del Euskera.

ARTÍCULO 2.- CUANTIA DE LA AYUDA ECONÓMICA.

La ayuda económica consistirá en una subvención del 100% del importe del curso.

En el caso de existir otras subvenciones, a fin de evitar la sobrefinanciación el Ayuntamiento solo subvencionará la diferencia de hasta el 100%.

Dicha cantidad no podrá superar en ningún caso la cantidad de 600,00 € por persona y año.

ARTICULO 3.- REQUISITOS PARA PERCIBIR LAS AYUDAS

- Estar empadronado/a en el municipio de Igorre durante la realización de los estudios y tener al menos 16 años cumplidos.
- Los cursos se deberán cursar en euskaltegis homologados por HABE.
- Asistencia de al menos el 80%, o, en su defecto haber superado el nivel de matriculación.
- Estar al corriente de sus obligaciones fiscales con el Ayuntamiento.
- Una vez finalizado el curso, en el caso de no solicitar la subvención dentro del plazo establecido para ello, en lo sucesivo no se podrá solicitar subvención por el curso realizado.

ARTICULO 4. – DOCUMENTACION A PRESENTAR

Para acogerse a las ayudas económicas previstas en esta Ordenanza, los/as interesados/as deberán presentar en el Registro General del Ayuntamiento de Igorre la correspondiente solicitud acompañada de la siguiente documentación:

- Declaración jurada, de no haber percibido subvención de otras administraciones o entidades. Y en el caso de haber obtenido subvención, el correspondiente



- Matrikularen ordainagiria
- Diru-sarrera egin nahi den bankuko kontu korronteko zenbakia.
- Ikasketak burutzen dituen euskaltegiak egindako egiaztagiria, ondorengo zehaztasun hauekin:

- a) Emandako eskola orduak
- b) Egindako ikasmaila eta lortutakoa
- c) Ordutegia
- d) Iraupena
- e) Matrikularen zenbatekoa
- f) Asistentzia

5. ARTIKULUA – ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA.

Diru-laguntza eskatzeko epea irailaren 15etik urriaren 15era artekoa izango da.

6. ARTIKULUA – ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Baldin eta eskatzailearen batek diru-laguntza jaso eta Ordenantzan jasotako betekizunen bat bete ez duela egiaztatuz gero, Udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu emandako diru-laguntza itzul dezan.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta horrela iraungo du, Udalak hori aldatu edota indargabetzea erabakitzen ez duen artean.

justificante.

- Justificante del abono de la matricula.
- Número de cuenta en el que desea que se realice el pago
- Certificado del euskaltegi, en el que conste:

- a) Horas impartidas por el centro
- b) Nivel realizado y nivel obtenido
- c) Horario
- d) Duración del curso
- e) El importe de la matricula
- f) Asistencia

ARTÍCULO 5.- PLAZO PARA LA PRESENTACION DE SOLICITUDES.

El plazo para la solicitud de subvención será del 15 de septiembre al 15 de octubre.

ARTÍCULO 6.- INFRACCIONES Y SANCIONES

En el caso de que se demuestre que una vez percibida la subvención, el/la solicitante haya incumplido algún requisito establecido, el Ayuntamiento adoptará las medidas oportunas para el reintegro de la subvención concedida.

DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia, teniendo la misma vigencia mientras tanto el Ayuntamiento no acuerde su modificación o derogación.-

ALKATEA

IDAZKARIA

EL ALCALDE

LA SECRETARIA